

Joxean Lazkano, Aialde-Berri sagardotegia


“Zapore aldetik, sagardo polita dugu aurten”

Zer moduzko sagardoa aurten?

Gehienbat hemengo sagarrarekin egindako sagardoa dugu. Baina aurten nahikoa ez eta zerbait Bretaña ingururitik ekarri dugu. Ez da ia ez bezala gorputz handiko sagardoa, baina zapore aldetik sagardo polita dugula iruditzen zait. Eta gainerakoan, naturala, ezer erantsi gabe egiten den sagardoa, urtero moduan. Sagardo suabe antzera, gazia baino geza, kolore gehi-veagorekin.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Gure kezka da, ia behin edo behin errekueratuko ote den aste egunetako bezeroa. Gurean 100 bat lagun sartzen dira, eta ia azteburuetan nahiko iburaz ibili ginen, ondo. Aurten ere esperantza hori dugu. Nahiago dugu betiko bezeroa, herri ingurukoa, Lasarte edo Orio, Zarautz aldeko dezente etortzen zaizkigu. Horiekin ondo mol-



Irekiera, urtarrileko bigarren astetik apirila bukaera edo maiatza aldera.

datzen gara eta horiek mantentzeko ideiarekin gaude. Aurten ere ez dugu joko talde handiak hartzera; talde txikiak, koadrila koxkorak, familiak... Hori mantenduz gero, gustura.

Zer berezitasun ditu Aialde-Berri eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Janaria mimatzen saiatzen gara. Afalostean kafe eta kopa zerbitzatzen dugu. Famili arteko jendea garenez, bezeroak ahalik eta egokien, goxoen, alaien tratatzen ahalegintzen gara, jendea lasai eta gustura egon dadin. Bezero gehienak izenez ezagutzen ditugu eta horrek asko esan nahi du guretzat.

Gonbidatu bezeroak zuenera...

Gu beti bezala herritik, trenetik gertutasun hori dugu. Eskaintzen duguna gure ikuspegitik ondo dago kobratzen dugunarekin. Beti saiatzen gara jendeari esaten, aurrez deitu dezatez. Lokal txikia dugu, eta zenbait garaitan atera etorri eta ezezkoa esatea gogorra egiten zaigu. Badaezpada deitu aurrez, hori da gure mezua.

Eta bestalde, txotx garaian sagardo zale direnak urte osoan zehar sagardo zale izatea nahi nuke. Sagardoa berriz mahaiko edaria izatea.

Aialde Berri sagardotegia

Helbidea: Aialde Berri 37, Santuenea.
Telefono zenbakia: 943 365 031.
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 20:00etatik aurrera. Larunbatetan, 13:30etatik eta 20:00etatik aurrera. Igandetan, 13:30etatik aurrera, gaue-tan itxita.